

SALDO POSITIBOA 7.200.000

pezeta.

HASIERAKO ONDARE ZUZKIDURA 1.000.000 pezeta.

BALIABIDE ERABILGARRIAK GUZTIRA 7.200.000 pezeta.

IV.- “ENPRESA ZUZENBIDERAKO INSTITUTOA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW FUNDAZIOA”ren izen aldaketa.

“ENPRESA ZUZENBIDERAKO INSTITUTOA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW FUNDAZIOA”ren izena aldatzea proposatzen da ondorengo honen ordez :

“ENPRESA ZUZENBIDE ETA ANTOLAKUNTZARAKO INSTITUTUA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW AND STRUCTURE FUNDAZIOA”

Eztabaidatu ondoren bozketari ekin zitzaion ondorengo akordioa hartuz ahobatez :

AKORDIOA : “ENPRESA ZUZENBIDERAKO INSTITUTOA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW FUNDAZIOA”ren izena “ENPRESA ZUZENBIDE ETA ANTOLAKUNTZARAKO INSTITUTUA/INSTITUTE FOR BUSINESS LAW AND STRUCTURE FUNDAZIOA” izenagatik ordezkatzeta onartu.

V.- Estatutuen 7. artikulua aldaketa.

Eztabaidatu ondoren bozketari ekin zitzaion ondorengo akordioa hartuz ahobatez :

AKORDIOA : “Estatutuen 7. artikulua ondorengo erredakzioa onartzen da :

7. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Fundazioak interes orokorreko bere helburuen artean, inpartzialitate eta objetibotasun erizpideen arabera ihardun beharko du bere onuradunak aukeratzekoan, ezin izango delarik inolako diskriminaziorik eman.



G 3255831

Zentzu honetan, fundazioaren onuradunak nagusiki, enpresa zuzenbidearen inguruko ikerketa juridikoan interesaturik dauden pertsona juridikoak eta, batez ere, enpresak, hezkuntz- zentruak eta administrazioa bera izango dira. Hauek lehentasuna izango dute gainontzeko onuradunen aurrean Fundazio honen helburuak kontutan hartuz, eta beti ere, onuradunak aukeratzeko ezarritako inpartzialitate eta objetibotasun erizpideak errespetatuz.

Banaka zehaztutako pertsonak ezin daitezke onuradun izan, eta prestazio fundazionalak ezingo zaizkie zuzendu fundatzaile, hauen ezkontide edo 4. gradurarteko ahaideei (azken gradu hau barne).

Fundazioak ematen dituen zerbitzuak direla eta, bere onuradunei kopuru bat ordaintzea galdatzen dienean, soilik galdatutako kantitate hori ordaintzen dutelako egingo da onuradunen zehaztapena.

Halaber, Fundazioaren berezko izaerak onuradunen zenbatekoa mugatzea eskatzen badu, hauen hautaketa eta zehaztapena Zaingo Batzordeak egingo du modu errebokaezinez, aurkezten direnen meritu, beharrian, gaitasun ekonomiko, probetxua ateratzeko aukerak edo beste ezaugarri objetiboak kontutan izanda. Orohar, ezin dezake inork, ez banaka ez taldeka, fundazio edo bere organuen aurrean, eman aurretiko onuren gozamina eskatu ezta hauen esleipena pertsona zehatzei inposatu ere.

Beti ere lehentasuna izango dute, euskaraz aurkezten diren proiektuak, ikasketa unibertsitarioekin lotutakoak eta Enpresa Kooperatiben Zuzenbide eta Antolakuntzarekin zerikusia dutenak

VI.- Zaingo Batzordearen kideen aldaketa.

Eztabaidatu ondoren bozketari ekin zitzaion ondorengo akordioa hartuz ahobatez.

AKORDIOA: " Zaingo Batzordearen osaketa berria, honako kide hauek izango dituelarik".

Lehendakaria: Julen Arexola-Leiba, NA 72.569.048 zk.a, ezkondua, Fueros 2-5Ia Arrasate, Gipuzkoa.

Lehendakari orde: Adrian Zelaia, NA 14.944.162-G zk.a, ezkondua, helbidea, Lehendakari Agirre 4, 1-B, Durango, Bizkaia

Idazkaria: Ainhoa Larrañaga, NA 15.391.100 zbk, ezkongabea, helbidea, Ondarre plaza 4, 3 ez Antzuola, Gipuzkoa.

Bokalak:

Agurtzane Goiriena, NA 30.581.899-H zk.a., ezkongabea, helbidea, Sabino Arana 16 Mungia, Bizkaia.

José Luis Abaunz, NA 72.571.382-B, ezkondua, helbidea, Foruen Plaza 6 Oñati, Gipuzkoa.

Jesús Garmendia, NA 15.206.687 zk.a, ezkodua, helbidea, Pablo Uranga 6-9º Arrasate, Gipuzkoa.